



Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea
Semana de Cine
Fantástico y de Terror
Horror and Fantasy
Film Festival

“Napardeath”-en estreinaldiarekin eta kartel ofizialaren aurkezpenarekin ekingo dio Asteak bere 30. urteurrenari

Igandean, maiatzaren 5ean, 19:00etan, Antzoki Zaharrean **Napardeath – Ataun of the Dead III** (2019) euskal produkzioa estreinatuko da. Proiektzioaren aurretik, datorren urriaren 26tik azaroaren 1era izango den Fantasiako eta Beldurrezko Astearen 30. edizioko kartela aurkeztuko da.

Filma **euskarazko jatorrizko bertsioan emango da, gaztelaniazko azpiztituluekin.**

Proiektzioarako **gonbidapenak** dohainik eskuratu daitezke dagoeneko Antzoki Zaharreko eta Victoria Eugeniako leihatiletan (gehienez 2 lagunentzat).

Napardeathekin –Katihotsak Logia Kultur Elkarteak ekoiztua– itxi egiten da **Ataun of the Dead** trilogia, Beñat Iturriozek eta Xabier Padinek 2012an hasia, **Ataun of the Dead** filmarekin, eta 2014an **Joxean’s hil ebenekin** jarraitu zuena.

Istorioren amaiaera honetan, lehenengo filmean berpiztu eta bigarrean Eusko Alderdi Banpiroa garaitu ondoren, Zumalakarregi zontzia Iruñeara abiatuko da bere burua euskaldunen errege izendatzeko asmoz. Bidea ez da uste bezain erraza izango...

Grabaketa Prozesuan zehar Euskal Herrian barna, puntarik punta, ibili dira erreka, ibai, mendi, desertu eta glaziarretan. 150 pertsonatik gorak hartu zuen parte grabazioan, 2018ko 7 hilabetetan zehar, egunerokotasuneko lanek uzten duten denbora libreba baliatuz.

Katihotsak elkartearen hitzetan: *“Ataun of the Dead trilogia ‘zuk zeuk egin’ filosofiaren barnean koka daiteke. Proiektu osoa auzolanean garatu da, baita **Napardeath** pastoral zinematografiko hau ere, trilogiaren azken atala. Estralurtarrak Central Park-en lur hartzeaz kokoteraino gaude. Hori dela eta, ikusi nahiko genituzkeen istorioak gurera ekarri eta errealitate bilakatu nahi izan ditugu, euskal iruditeria eta pertsonaiak uztartu eta gure historia zinemara eramanez. Hau guztia nola ez, natural ateratzen zaigun umorea lagun, Xahok irudikatutako Zumalakarregiren bertsio libre bat marraztuz eta satira politikoaren eremuan hatz puntak sartuz. Euskaraz, gure hizkuntzan. Gure burua guk ez badugu imajinatzen, besteek imajinatuko baikaituzte”.*

KARTEL OFIZIALA 2019

Antzoki Zaharrean **Napardeath** proiektatu aurretik, 2019ko Beldurrezko Astearen kartel ofiziala aurkeztuko da, hogeita hamar urte beteko dituen edizioaren abiaburuko ekitaldi horretan. Eta ospakizunari hasiera emateko Astearen aktibo nagusiari egin zaio omenaldi, bere publikoari, alegia.